

Bixente Atorrasagasti Gartziarena
Donostia, Gipuzkoa (1947)

Aurkibidea

Biografia

Feria egun batean bi baserritarren artean sortutako adiskidetasuna tarteko etorri omen zen XIX. mendearen hondarrean Bixenteren aitona, Antonio Atorrasagasti, Sorabillako Lakaetxe baserritik Martuteneko Larrañategira lanera. Handik urteetara etxeko alaba Apolinar Zamorarekin ezkondu zen; Agirretolare baserrian bizitzen jarri, eta laster etxea erosi ahal izan zuten. Ordurako sagardogintzarekin lotutako baserriaren garairik oparoenak amaituak izango baziren ere, ez da harritzekoa gerora ogibidea bilakatuko zen upelgintza eta, oro har, arotzeria nola-hala ikasi izana. Hiru semeek eman zioten segida lanbideari, baita Antonioren biloba Bixente Atorrasagastik ere. Lanbide horretan aritu zen harik eta 32 urte bete zituen arte. Orduan arotzeria utzi eta eraikuntzan jardun zuen, erretreta hartu arte. Halere, upelak nola egin eta berritzen zituzten ez zaiola ahaztu erakutsi zigun.

Zintak

DON-179

- **Proiektua:** Behe Urumearen Memoria Historikoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirresarobe, Asier - Tellabide, Josu
- **Data:** 2013-12-09
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Audio digitala
- **Emalea:** Agirresarobe, Asier

Pasarteak

1. Sagardogintzarekin lotutako zurgin jatorria

- **Erref:** DON-179/002
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:00:20. **Bukatu:** 00:04:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Familiaren jatorria Sunbillan dago. Bixenteren aitona, aita eta haren bi anaiak arotzak izan ziren, Bixente bezalaxe. Sagardogintzarako beharrezkoak ziren egurrezko tresna eta pieza guztiak egiten zituzten: kupelak, matxakak, ziriak, dolareak eta abar.

2. Egindako kupelik handiena

- **Erref:** DON-179/003
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:04:07. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

33.000 litrokoa izan zen egin zuten kupelik handiena. Horrelako kupelak egiteko, haritz-egurra erabiltzen zuten gehienetan; bestela, gaztainondo-egurra ere erabiltzen zela dio.

3. Dolareak eta arotz-lanak

- **Erref:** DON-179/004
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:07:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Rosario Zapirainek eskatuta egin zuten Errekaldeko dolarea. Asturiasko erakoa

dela dio. Beste baserri askotarako egin zituzten dolare-zoluak, kupelak eta sagardogintzarekin lotutako beste hainbat lan ere; tartean, hainbat baserri aipatzen ditu. Oro har, lanak aroztégian egiten ziren eta, behin amaituta, bertara garraiatzen zituzten. Hala ere, gerta zitekeen pieza handiegiak izatea eta lana lekuan bertan egin behar izatea ere.

4. Karrota-barrikak

- **Erref:** DON-179/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:07:13. **Bukatu:** 00:08:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

20 litro inguruko barrika txikiak ez ziren hainbeste egiten. Karrota-barrikak, gurdian garraiatzeko barrika handiagoak egiten ziren jeneralean. Neurriei buruz dirau.

5. Errekaldeko dolarearen muntaiaren azalpenak

- **Erref:** DON-179/006
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:08:13. **Bukatu:** 00:09:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Errekaldeko dolarea egiteko egurra Asturiastik ekarri zuten oholak eginda. Egurrari forma borobildua, uztaiari esker ematen zaiela dio. Hainbat azalpen ematen ditu muntaiari buruz.

6. Geometria ezinbestekoa kupelgintzan

- **Erref:** DON-179/008
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:11:42. **Bukatu:** 00:14:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Egurrezko piezen arteko junturak egiteko ez zuten bestelako materialik erabiltzen. Piezei angelu egokia emanez gero, egurra egurraren kontra estutzean, erabat itxita geratzen zen. Geometria, Donostiako Boulevardean zegoen Academia Mercadal-en ikasi zuen; kupelak egiteko behar zituen kalkuluak, ordea, aitzak irakatsi zizkion Bixenteri.

7. Kupelaren muntaketarako uztaiak egitea

- **Erref:** DON-179/009
- **Iraupena:** 0:04:52. **Hasi:** 00:14:51. **Bukatu:** 00:19:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Kupelaren muntaketari buruzko azalpenak ematen ditu. Uztaiak egiteko erabiltzen diren altzairuzko zerrendak edo flejeak ez omen dira zuzenak izaten; kupelaren formara egokitu behar dute, alde batean estuagoak izanik. Forma hori, ingudean borrararekin kolpeak emanez lortzen da. Hasieran, uztaiak berotan galdatuta lotzen zituzten; geroago, berriz, teknika aldatu eta errematxatu egiten zituzten.

8. Kupelaren azken lanak: zepilatzea, kanala eta hondoa.

- **Erref:** DON-179/010
- **Iraupena:** 0:06:56. **Hasi:** 00:19:43. **Bukatu:** 00:26:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Kupela muntatu ondoren egiten ziren lanak azaltzen ditu: zepilatzea, kanala egitea eta hondoa prestatu eta jartzea. Horretarako erabiltzen zituzten neurketa- eta muntaketa-teknikak ere azaltzen ditu.

9. Kupelen adabegiak estaltzeko gantza prestatzea

- **Erref:** DON-179/012
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:27:27. **Bukatu:** 00:31:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Kupelen juntetatik sagardoa galtzea oso zaila izaten zen; izatekotan, adabegietatik galduko zela dio. Oholen adabegi edo arrakalak estaltzeko, gantza erabiltzen zen. Prozesuari buruzko azalpenak ematen ditu eta baita gantza nondik lortzen zuten ere.

10. Kupelaren leihoa eta zuloak

- **Erref:** DON-179/013

- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:31:39. **Bukatu:** 00:32:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Kupela egiteko azken urratsa leihoa eta gainerako zuloak egitea izaten zen. Horretarako erabiltzen zituzten erremintak eta teknikak azaltzen ditu.

11. Kupelaren eta tinoaren arteko aldeak

- **Erref:** DON-179/015
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:36:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Kupelak eta barrikak egiteko prozesua bera dela dio. Tinoa egitea, ordea, zertxobait desberdina da: kono-formakoa denez, ohol zuzenak behar ditu, eta oinarriak goiko aldeak baino diametro handiagoa izaten du.

12. Gipuzkoako karreko-barrikarik handiena

- **Erref:** DON-179/017
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:37:10. **Bukatu:** 00:38:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Añorgako Bidarte baserrian dago Gipuzkoako karreto-barrikarik handiena. Bost metrotik gorakoa da, eta Bixentek egin zuen. Bertako erlojuaren egurrezko kutxa ere berak egin zuen, 16 urte besterik ez zituela.

13. Karroak, eskorgak eta ikuz-oholak

- **Erref:** DON-179/018
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:38:47. **Bukatu:** 00:41:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Karroak, eskorgak eta ikuz-oholak ere egiten zituzten. Haien ezaugarriak eta nolakoak izaten ziren azaltzen du.

14. Arotz-lanak sagardotegi gehienetan

- **Erref:** DON-179/019
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:41:54. **Bukatu:** 00:43:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Konpetentzia izan arren, inguruko sagardotegi gehienetarako arotz-lanak beraiek eginak dira.

15. Ordainketak eta kobrantzak

- **Erref:** DON-179/022
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:50:07. **Bukatu:** 00:51:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Lanak hasi aurretik aurrekontuak egiten zituzten, eta ordainketa dirutan, eskura, egiten zen. Mutikoa zela, aitzak baserriren batera lanen ordaina kobratzera bidali izan zuenekoa kontatzen du.

16. Txiskua

- **Erref:** DON-179/026
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:54:46. **Bukatu:** 00:57:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Bitan banatutako kupelari txiskua esaten zitzaion. Erdian, kanala egin eta, bi sagardo mota kupel bakarrean gorde ahal izateko, hirugarren hondo bat jartzen zitzaion. Ale bakar bat geratzen omen da gaur egun Gipuzkoan.

17. Inguruko bi errekek

- **Erref:** DON-179/035
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:13:22. **Bukatu:** 01:15:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Bi erreka desberdini egiten diete erreferentzia. Handienak lau metro inguruko izan zitezkeen, eta gabarrak bertatik sar zitezkeen. Bestea, Buztintegi izenez ezagutzen zena, askoz txikiagoa zen.

18. 1953ko uholdearen testigantza

- **Erref:** DON-179/036
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:15:25. **Bukatu:** 01:17:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

1933ko uholde handiak ere bizi izan bazituen ere, Bixentek argien gogoratzen ditu 1953koak. Urak etxea hartu zuen, eta uholde hark eragindako kalteez hitz egiten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com